ALBOAN
ONG promovida por los jesuitas

Egibide

Cáritas
Diocesana de Vitoria
Gasteizko Elizbarrutia

# ALIANZA POR LA SOLIDARIDAD, EL EMPLEO Y LA JUSTICIA SOCIAL ENTRE EGIBIDE, CÁRITAS Y ALBOAN

“Es una buena noticia para los 7.000 alumnos/as y 450 educadores/as de EGIBIDE y de igual forma para la sociedad gasteiztarra y alavesa”, resumen los directores de las tres organizaciones tras la firma del convenio de colaboración

**Jorge Urrutia,** Director General de **EGIBIDE**, Escuela Cristiana de iniciativa social de ESO, Bachillerato y Formación Profesional, **Santos Gil,** Director de **CÁRITAS** Diocesana de Vitoria y **José Ignacio Eguizabal,** Director de **ALBOAN** ONG promovida por los jesuitas, han firmado este lunes un histórico convenio de colaboración del que saldrá beneficiada la sociedad gasteiztarra y alavesa y, en particular, los 7.000 alumnos/as que integran actualmente EGIBIDE junto con sus 450 educadores/as además de la gran familia que conforman ALBOAN y CÁRITAS en sus perspectivas de Solidaridad, Justicia Social, Comercio Justo, Voluntariado y atención a sectores en riesgo de exclusión.

*“Pensamos que era oportuno y necesario llegar a un convenio de colaboración donde se recogieran por un lado nuestra confluencia de objetivos e intereses y, por otro, las acciones a desarrollar en beneficio de la sociedad vitoriana y alavesa. Y así ha sido*”, ha señalado el director de EGIBIDE, Jorge Urrutia. *“Tenemos, entre otros fines, la creación y realización de iniciativas para el fomento de la Formación Profesional y la inserción socio-laboral del alumnado, especialmente de jovenes en riesgo de exclusión social o con especiales dificultades de contratación mediante una formación técnica profesional adaptada a sus características. Y junto a ello, un marcado interés en el ámbito de la educación, movilización social e incidencia a favor de la justicia y la igualdad*“.

Además del beneficio general para la sociedad, este marco regulará el desarrollo de las acciones dirigidas a contribuir a la educación del alumnado de Egibide *“como personas con visión crítica y valores sólidos implicadas en la transformación de la cultura y las estructuras que generan injusticia, en el ámbito local y global como ejercicio de una ciudadanía activa”.*

Arriaga
Pozoa s/n
01013 Vitoria-Gasteiz
tel. 945 010 110
fax. 945 010 119

Jesús Obrero
Francia 32
01002 Vitoria-Gasteiz
tel. 945 000 333
fax. 945 000 334

Mendizorrotza
Pza. Gª Salazar (Frontones)
01007 Vitoria-Gasteiz
tel. 945 010 140
fax. 945 010 149

Molinuevo
San Ignacio 6
01001 Vitoria-Gasteiz
tel. 945 010 120
fax. 945 010 129

Nieves Cano
Nieves Cano 10
01006 Vitoria-Gasteiz
tel. 945 010 130
fax. 945 010 139

info@egibide.org
www.egibide.org

## CONVENIO CÁRITAS

En el caso del convenio entre EGIBIDE y CÁRITAS, *"hay una confluencia de intereses en el campo de la formación y la empleabilidad por lo que creamos un marco de colaboración regular para el desarrollo concertado de acciones dirigidas a mejorar la capacitación profesional y la inserción laboral de nuestros respectivos colectivos"*, ha señalado Jorge Urrutia. El convenio se sustenta en los siguientes acuerdos:

- **Formación.-** Colaborando en la promoción de nuevos cursos de Formación para el Empleo que sean de interés para ambos colectivos, así como en el intercambio de información periódica sobre empresas interesadas en incorporar alumnos en prácticas no remuneradas.

- **Mercado de trabajo.-** Comunicándose periódicamente cuanta información puedan recabar sobre diferentes aspectos: empresas de nueva instalación, ampliaciones de plantilla, nuevos yacimientos de empleo, perfiles demandados por las empresas y ofertas de empleo.

- **Prácticas académicas.-** Facilitando que alumnos y alumnas de EGIBIDE puedan realizar las prácticas obligatorias correspondientes a sus estudios en los distintos programas y actividades de Caritas Diocesana.

- **Orientación laboral.-** CARITAS canalizará e informará a los beneficiarios de las posibilidades de formación que ofrece EGIBIDE con el fin de que sean atendidos en los grupos de orientación.

- **Orientación escolar.-** CARITAS se compromete a atender los casos detectados por los orientadores y tutores de EGIBIDE y, en su caso, derivarlos a otros servicios sociales.

- **Fondo solidario.-** Ambas entidades formarán parte del equipo de gestión de dicho fondo

"*El convenio nos compromete a la colaboración mutua en el intercambio de información sobre las demandas del mercado de trabajo y sobre las necesidades formativas para el acceso al empleo. Todo ello, para desarrollar una adecuada planificación de los cursos de formación que impartirían ambas entidades*", ha puntualizado **Santos Gil** (Cáritas) quien recuerda que entre los acuerdos establecidos "*se recoge también que los alumnos y alumnas de EGIBIDE puedan desarrollar prácticas académicas no remuneradas en los programas y actividades de Cáritas*".

ALBOAN
ONG promovida por los jesuitas

Cáritas
Diocesana de Vitoria
Gasteizko Elizbarrutia

**CONVENIO EGIBIDE-ALBOAN**

En cuanto al convenio entre ALBOAN y EGIBIDE, deviene de una relación anterior que se remonta a hace más de 6 años cuando ALBOAN abrió una sede en Vitoria-Gasteiz. *"Jesús Obrero cedió parte de sus instalaciones e iniciamos una relación que se ha visto fortalecida años después con la creación de EGIBIDE",* recuerda **José Ignacio Eguizabal**, Director de ALBOAN ONG promovida por los jesuitas. Ambas entidades se sienten comprometidas *"con la formación de una ciudadanía global, arraigada en el ámbito local, que cuente con valores sólidos y se implique en la transformación del modelo económico, político y social que genera exclusión y desigualdad en todo el mundo. Necesitamos de* una sociedad civil comprometida y capaz de hacer realidad otros modelos de desarrollo económico". Los objetivos del convenio se sintetizan en:

- **Formación y acompañamiento del equipo educativo.-** ALBOAN dotará de herramientas pedagógicas para trabajar la dimensión de la justicia y la solidaridad.

- **Apoyo al grupo de voluntariado BILATUZ.-** EGIBIDE participa en el proyecto ParticipAcción promovido por ALBOAN y contribuirá a fortalecer la propuesta de voluntariado de EGIBIDE. Así mismo, ALBOAN estará disponible para apoyar con formación y acompañamiento al grupo BILATUZ junto con el Centro Social Ignacio Ellacuría.

- **Acciones de incidencia vinculadas a la educación y la justicia.-** EGIBIDE participará en las acciones de la Semana de Acción Mundial por la Educación (SAME). ALBOAN es parte del Consorcio de las organizaciones que promueven esta campaña en el País Vasco

- Elaboración del **Plan para educar en la justicia y la solidaridad:** Dirigido al alumnado de EGIBIDE y formando al equipo educativo de los 5 campus para promover la educación para una ciudadanía global

- Promoción del **Comercio Justo y Consumo Responsable**

- **Actividades de sensibilización** con el tejido social y empresarial de Vitoria-Gasteiz

**Aitor Buendía**
Prentsa EGIBIDE
Nieves Cano, 10 - 01006 Vitoria-Gasteiz
www.egibide.org - abuendia@egibide.org
Tel: 945 010 162 - 672 240 376

**Vitoria-Gasteiz, 06 de mayo de 2013**

# ELKARTASUNAREN, ENPLEGUAREN ETA JUSTIZIA SOZIALAREN ALDEKO ALIANTZA EGIBIDE, CÁRITAS ETA ALBOAN-EN ARTEAN

## “Berri ona da EGIBIDEko 7.000 ikasleentzat eta 450 irakasleentzat, baita Gasteizko eta Arabako gizartearentzat ere”, adierazi dute hiru erakundeotako zuzendariek lankidetza-hitzarmena sinatzean

**Jorge Urrutiak —EGIBIDEko** (DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako Gizarte Ekintzako Kristau Eskola) zuzendari nagusia—, **Santos Gilek** —Gasteizko Elizbarrutiko **CÁRITASeko** zuzendaria— eta **José Ignacio Eguizabalek —ALBOANeko** (jesuitek sustatutako GKEa) zuzendaria— lankidetza-hitzarmen historiko bat sinatu dute gaur, astelehena. Gasteizko eta Arabako gizartearentzat mesedegarri izango da hitzarmena, batez ere EGIBIDEn ikasten duten 7.000 ikasleentzat eta 450 irakasleentzat, eta ALBOANek eta CÁRITAS osatzen duten familia handi horrentzat eta biek sustatzen duten elkartasunaren, justizia sozialaren, bidezko merkataritzaren, boluntariotzaren eta gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan direnen aldeko lanarentzat.

*“Egokia eta beharrezkoa iritzi genion lankidetza-hitzarmena adosteari eta han jasotzeari, batetik, gure helburu eta interes bateratuak eta, bestetik, Gasteizko eta Arabako gizartearen aldeko gure ekimenak. Eta halaxe egin dugu*”, adierazi du EGIBIDEko zuzendariak, Jorge Urrutiak. *“Lanbide Heziketa sustatzeko eta ikasleak lanbideratzeko ekimenak sortzea eta gauzatzea da gure helburuetako bat, batez ere gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden edo kontratatuak izateko zailtasun bereziak dituzten gazteentzat, haien ezaugarrietara egokitzen den trebakuntza tekniko-profesional baten bidez. Horrekin batera, arreta berezia egingo diogu hezkuntza-alorrari, gizarte-mobilizazioari eta justiziaren eta berdintasunaren aldeko jarduerari “*.

Gizartearentzat, oro har, onuragarri diren ekimenez gain, Egibideko ikasleen heziketarako lagungarri direnak ere arautuko ditu hitzarmen honek, *“ikuspegi kritikoaren eta balio sendoen jabe diren herritar gisara hezi nahi ditugu ikasleak, injustiziaren eragile diren egiturak eta kultura aldatzeko prest daudenak, bai hemen bai mundu osoan; hau da, herritar aktiboak hezi nahi ditugu”*.

Arriaga
Pozoa s/n
01013 Vitoria-Gasteiz
tel. 945 010 110
fax. 945 010 119

Jesús Obrero
Francia 32
01002 Vitoria-Gasteiz
tel. 945 000 333
fax. 945 000 334

Mendizorrotza
Pza. Gª Salazar (Frontones)
01007 Vitoria-Gasteiz
tel. 945 010 140
fax. 945 010 149

Molinuevo
San Ignacio 6
01001 Vitoria-Gasteiz
tel. 945 010 120
fax. 945 010 129

Nieves Cano
Nieves Cano 10
01006 Vitoria-Gasteiz
tel. 945 010 130
fax. 945 010 139

info@egibide.org
www.egibide.org

**CÁRITAS-EKIKO HITZARMENA**

EGIBIDEren eta CÁRITASen arteko hitzarmenari dagokionez, *"bat egiten dute gure interesek trebakuntzaren eta enplegagarritasunaren arloan, eta horregatik sortu dugu lankidetza-esparru iraunkor bat, gure erakundeetako jendearen gaitasun profesionala eta lana aurkitzeko aukerak hobetzearren"*, adierazi du Jorge Urrutiak. Atal hauek ditu hitzarmenak:

- **Trebakuntza.-** Aipatutako bi taldeentzat interesgarri diren Enplegurako Trebakuntzako ikastaro gehiago sustatzen lagunduz, eta ordaindu gabeko praktikak egiteko ikasleak nahi dituzten enpresei buruzko informazioa trukatuz hainbatean behin.

- **Lan-merkatua.-** Elkarri jakinaraziz, maiztasun jakin batekin, alderdi hauei buruzko biltzen den informazio guztia: enpresa berriak, langile gehiagoren kontratazioa, enplegu-hobi berriak, enpresek eskatzen dituzten profilak, eta enplegu-eskaintzak.

- **Praktika akademikoak.-** EGIBIDEko ikasleei erraztasunak emanez Elizbarrutiko Cáritasen egin ditzaten ikasketei dagozkien praktikak (nahitaezkoak).

- **Lanerako orientabidea.-** CÁRITASek jakinaraziko die onuradunei zer trebakuntza-eskaintza dituen EGIBIDEk, gero orientazio-taldeetara bidera ditzaten.

- **Eskola-orientabidea.-** CÁRITASek hartuko ditu bere gain EGIBIDEko orientatzaileek eta tutoreek atzematen dituzten kasuak eta, hala badagokie, beste gizarte-zerbitzu batzuetara bideratuko ditu.

- **Elkartasun-funtsa.-** Bi erakundeok jardungo dira funts horren kudeaketa-taldean.

"*Hitzarmenaren arabera, elkarlanean jardungo gara lan-merkatuko eskaintzei eta enplegua eskuratzeko dauden trebakuntza-premiei buruzko informazio-trukean. Hartara, egokiro planifikatuko dira bi erakundeok emango dituzten trebakuntza-ikastaroak*", azaldu du **Santos Gilek** (Cáritas); gogoratu du, bestalde, beste hau ere badiola hitzarmenak: *"EGIBIDEko ikasleek ordaindu gabeko praktika akademikoak egin ditzakete Cáritaseko programa eta jardueretan"*.

ALBOAN

ONG promovida por los jesuitas

Egibide

Cáritas
Diocesana de Vitoria
Gasteizko Elizbarrutia

**EGIBIDE-ALBOAN HITZARMENA**

ALBOANen eta EGIBIDEren arteko hitzarmenari dagokionez, lehenagotik datorren harreman baten emaitza dugu, ALBOANen Gasteizko egoitza ireki zuenetik (duela sei bat urte). *"Jesús Obrerok bere instalazioen zati bat utzi zigun, eta, gero, EGIBIDE sortzean, sendotu egin da orduan hasitako harremana",* gogoratu du **José Ignacio Eguizabalek**, ALBOAN GKEko (jesuitek sustatua) zuzendariak. Bi erakundeek dute helburu *"herritar globalak baina beren herrian sustrai sakonak dituztenak heztea, balio sendoak dituzten herritarrak, mundu osoan desberdintasuna eta bazterketa eragiten dituen eredu ekonomiko, sozial eta politikoa aldatzeko prest daudenak. Gizarte zibil konprometitua behar dugu, beste era bateko garapen ekonomikoko ereduak gauzatzeko gai dena*". Hona hemen, labur adierazita, hitzarmenaren helburuak:

- **Hezkuntza-taldea trebatzea eta hari laguntzea.-** ALBOANek tresna pedagogikoak eskainiko ditu justiziari eta elkartasunari buruzko heziketa emateko.

- **BILATUZ boluntariotza-taldeari laguntzea.-** ALBOANEk sustatzen duen ParticipAcción proiektuko partaide da EGIBIDE, partaidetza horrek erakunde honen boluntariotza- lana sendotuko duela baiteritzo. ALBOANek, berriz, trebakuntza eta laguntza eskainiko dizkio BILATUZ taldeari, Ignacio Ellacuría Gizarte Zentroarekin batera.

- **Hezkuntzari eta justiziari lotutako ekimenak.-** Hezkuntzaren aldeko Mundu Astean (HMA) esku hartuko du EGIBIDEk. Aste hori Euskal Herrian sustatzen duten erakundeen partzuergoko partaide da ALBOAN.

- **Justiziari eta elkartasunari buruzko heziketa eskaintzeko planaren** prestakuntza: EGIBIDEko ikasleei dago zuzendua plana. Bost campusetako irakasleak trebatuko dira, herritartasun globalaren aldeko hezkuntza susta dezaten.

- **Bidezko Merkataritzaren eta Kontsumo Arduratsuaren** sustapena.

- **Sentsibilizazio-jarduerak** Gasteizko gizartearekin eta enpresekin.


**Aitor Buendía**
EGIBIDEko prentsa-bulegoa
Nieves Cano, 10 - 01006 Gasteiz
**www.egibide.org - abuendia@egibide.org**
tel.: 945 010 162 - 672 240 376
Egibide


**Vitoria-Gasteizen, 2013ko maiatzaren 6an**

ALBOAN

ONG promovida por los jesuitas

Egibide

Cáritas
Diocesana de Vitoria
Gasteizko Elizbarrutia


Arriaga
Pozoa s/n
01013 Vitoria-Gasteiz
tel. 945 010 110
fax. 945 010 119

Jesús Obrero
Francia 32
01002 Vitoria-Gasteiz
tel. 945 000 333
fax. 945 000 334

Mendizorrotza
Pza. Gª Salazar (Frontones)
01007 Vitoria-Gasteiz
tel. 945 010 140
fax. 945 010 149

Molinuevo
San Ignacio 6
01001 Vitoria-Gasteiz
tel. 945 010 120
fax. 945 010 129

Nieves Cano
Nieves Cano 10
01006 Vitoria-Gasteiz
tel. 945 010 130
fax. 945 010 139

info@egibide.org
www.egibide.org